

# BBK JAZZ X. ERAKUSTALDIA - SARIAK

## **1. Sarien kopurua, tipologia eta edukia**

1.1.- Sari-kopurua eta mota: 14

BBK JAZZ 2019 erakustaldiaren hamargarren edizioan sari hauek emango dira:

- Instrumentista Onenaren saria
- Disko Onenaren saria
- Bultzada saria
- Deia sari berezia

1.2.- Sarien edukia:

Atal bakoitzak izango du bere saria, eta Bultzada sariak diskografia-ekoizpen baten finantzaketa izango du, gainera.

## **2. BBK JAZZ sarien betebeharrak**

**a)- Instrumentista Onenaren saria:** Instrumentista legez duen ibilbidea eta garrantzia sarituko zaio musikari bati, aparte utzita lider edo sideman den. Saria Euskal Herrian bizitzen lau urte baino gehiago daramatzen (legez dokumentaturik) musikari bati emango zaio.

**b)- Disko Onenaren saria:** 2018. urtean (Lege Gordailua) argitaraturiko proiektu bat sarituko da. Euskal Herrian jaiotako –nonahi bizi d(ir)ela ere orain– edo hemen bertan bizitzen lau urte baino gehiago daramatza(te)n (legez dokumentaturik) musikaria(k) lider d(it)uen proiektu batentzako da saria. Lider nabarmen bako musika-taldeen kasuan, kideen erdiak eta beste bat Euskal Herrian jaiotak edo

berton bizitzen lau urte baino gehiago daramatzatenak izan behar dute (legez dokumentaturik).

**c)- Bultzada saria:** Gorabidean dagoen norbaiten proiektu bat sarituko da, gaztea delako edo epaimahaiak kontuan har dezakeen beste arrazoiren batengatik, diskografia-lan bat argitaratzeko aukerarik izan ez duen norbaitena.

1.- Izena emateko unean ez izatea batere diskorik argitaratuta.

2.- Aurkeztuko den proposamenaren materiala helbide elektroniko honetan ([impulsosaria@jazz-on.org](mailto:impulsosaria@jazz-on.org)) jaso behar da, finkaturiko epea (2019ko urriaren 15a) baino lehen

3.- Euskal Herrian jaiotako –nonahi bizi d(ir)ela ere orain– edo hemen bertan bizitzen lau urte baino gehiago daramatza(te)n (legez dokumentaturik) musikaria(k) lider d(it)uen proiektu batentzako da saria. Lider nabarmen bako musika-taldeen kasuan, kideen erdiak eta beste bat Euskal Herrian jaiotako edo bertan bizitzen lau urte baino gehiago daramatzatenak izan behar dute (legez dokumentaturik).

**d)- Deia sari berezia:** Atal honetan sartuta, epaimahaiak ahalmena izango du, kategoria finkoetatik kanpo eta egoki iruditzen zaion epigrafe pean, era guztietako alderdiak (ibilbidea, bilakaera, errebelazioa, eszenan eragina eta abar) saritu eta aitortzeko. Saria hautagai bakarrarentzat pentsaturik dagoen arren, epaimahaiak gehienez bi sari eman ahal izango ditu, eta gehienez hiru aipamen edo ohorezko aitortza ere bai, egoki iruditzen bazaio.

(Diru-kopuru barik).

Antolatzaileek, Lehiaketaren edozein fasetan, baztertu egingo dituzte Oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten taldeak.

### ***3. Hautagaitzak: helburuak, epea eta kudeaketa.***

3.1.- Helburuak:

**a)- Instrumentista Onenaren saria:**

Sari honen helburua da euskal eszenan edo hemendik kanpo nabarmenenak eta garrantzitsuenak diren euskal musikarien lana aitortzea. (gaur egun diru-kopuru barik)

#### **b)- Disko Onenaren saria**

Sari honen helburua da euskal eszenan edo hemendik kanpo nabarmenenak eta garrantzitsuenak diren proiektuak sustatu eta ezagutaraztea. Bereziki balioetsiko dira proiektuen originaltasuna eta sormena. (gaur egun diru-kopuru barik)

#### **c)- Bultzada saria**

Sari honen helburua da gorabidean dauden talentu berriei laguntza eta pizgarriak ematea. Bereziki balioetsiko dira proiektuen kalitatea, orijinaltasuna eta sormena.

*Sariaren diru-kopurua:* Diskografia-ekoizpen bat grabatu, editatu eta argitaratzea finantzatuko da.

#### **d)- Deia sari berezia**

Atal honetan, epaimahaiak ahalmena izango du, kategoria finkoetatik kanpo eta egoki iruditzen zaion epigrafe pean, era guztietako alderdiak (ibilbidea, bilakaera, errebelazioa, eszenan eragina eta abar) saritu edo aitortzeko pertsona, ekimen edo erakundeei.

### 3.2.- Aurkezteko epea:

Proposamenak aurkeztea eskatzen duten bi sarietarako (Bultzada sarirako eta Disko Onenaren sarirako), horretarako ireki den epea 2019ko urriaren 15ean amaituko da.

### 3.3.- Hautagaitzen zerrenda kudeatzea:

1.- Proposamenak berrikustea.- Aurkezteko epea amaitu eta gero, jasotako hautagaitza guztiak berrikusiko ditu koordinazio-taldeak, baldintzak betetzen ote dituzten egiaztatzeko eta, hala badagokio, proposatu duen pertsonari beharrezko

datuak ekar ditzan eskatuko dio, gehienez ere 5 eguneko epean jakinarazpenaren datatik.

2.- Bazterturiko proposamenak.- Hautagaitzen behin betiko zerrenda egin aurretik, onartu bako hautagaitzak proposatu dituzten pertsonekin jarriko da harremanetan koordinazio-taldea, ez-onartzea eta horren arrazoia azaltzeko helburuarekin, eta, hala balegokio, gaizki-ulertzeak edo erreklamazioak argitu eta kudeatzeko.

3.- Hautagaitzen azken zerrenda Erakustaldiko Epaimahaiaren esku lagako da.

#### ***4. - Epaimahaia eta metodologia***

4.1.- Sarietako Epaimahaiaren eraketa Erakustaldiaren koordinakundeak (Jazzon!) egingo du, eta Jazzean espezializaturiko bost profesionalak osatuko dute, ospe eta profesionaltasun nabarmenekoak izango dira, euskal eszena ezagutzen duten adituak.

4.4.- Epaimahaia Jazzon!-eko kide batek koordinatuko du, eta hau arduratuko da Erakustaldiaren espiritua epaimahaiko kideei transmititzeaz. Pertsona honek berba izango du, baina ez botoa, eta Epaimahaiko idazkari-lanak egingo ditu.

#### ***5. - Antolatzailearen eskubideak eta betebeharrak***

5.1.- 5.1.- Betetzea eta gainbegiratzea:

Jazzon!-eko Zuzendaritza Batzordeak Oinarri hauek bete daitezen zainduko du uneoro, baita Lehiaketan gardentasuna bermatzea ere.

5.2.- Sustapen-edukiak:

Sarituak gertatzen diren parte-hartzaileek Eltxo Kultur Ekoizpenak, S.L.ri ikus-entzunezko edukiak eta irudiak emango dizkiote, soil-soilik sustapen-xedearekin erabiltzeko baimenarekin.

#### 5.3.- Datu okerrak:

Antolatzaileek ez dute erantzukizunik izango erakunde edo pertsona proposatzaileek eman eta argitaraturiko datuetan akatsak edo omisioak baldin badaude.

#### 5.4.- Oinarrietan Aldaketak:

Jazzon!-eko Zuzendaritza Batzordeak erabaki lezake Oinarri hauetan aldaketa zehatzen batzuk egitea, eta kasu horretan posta elektronikoaren bidez jakinaraziko litzateke orokorrean.